Usurbilgo Udala

2026/10/29

**2026KO URRIAREN 29AN EGINDAKO**
**OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Agurtzane Solaberrieta Mesa

**Zinegotziak**

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Kontu-hartzailea:** Gorka Lizarraga Erro.

Ez da bertaratu: Petra Romero Pozo.

Usurbilen, 2026ko urriaren 29an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

### 1.1.- 2026KO IRAILAREN 24KO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek 2026ko irailaren 24ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

### 1.2.- 2026KO URRIAREN 7KO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek 2026ko urriaren 7ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2026KO IRAILAREN 15ETIK URRIAREN 23RA (2026/1317-2026/1508).**

Alkatetzak 2026ko irailaren 15etik urriaren 23ra bitartean (2026/1317-2026/1508) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

**3.- BERRI EMATEA: 2026/1470 DEKRETUA.**

2026/1470 dekretuaren berri eman da.

**4.- KONTU EMATEA: 2026KO 3.HIRUHILEKO OBBE.**

2026ko 3. hiruhileko Ordaintzeko Batez Besteko Epearen (OBBE) kontu eman da.

**5.- KONTU EMATEA: 2026KO 3. HIRUHILEKO EXEKUZIOA.**

2026ko 3. hiruhileko Exekuzioren kontu eman da.

**6.- KONTU EMATEA: KALD006 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

KALD006 Kreditu Aldaketa espedientearen kontu eman da.

**7.- KONTU EMATEA:  KALD007 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA.**

KALD0007 Kreditu Aldaketa espedientearen kontu eman da.

**8.- 2026/1500 DEKRETUA BERRESTEA: USURBILGO UDALA, EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ECOEMBALAJES ESPAÑA SA ENPRESAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENARI ATXIKITZEA (2026HITZ0012).**

Puntu hau batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez berretsi dute gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, batzarkideek aho batez onartu dute alkatearen proposamena, honela dio:

“Usurbilgo Alkate-Lehendakariak 2026ko urriaren 21ean, 2026/1500 zenbakidun dekretuaren bidez zera erabaki zuen hitzez hitz:

**2026/1500 DEKRETUA**
Data:2026-10-21

**AGURTZANE SOLABERRIETA MESA** andereak, Usurbilgo Udaleko ALKATEAK, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1.985ko Legeko 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau

2026ko uztailaren 23an, EAEko Administrazio Orokorraren eta Ecoembalajes España SA enpresaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatu zen.

Hitzarmenaren aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako eta PEEHSKri edota atxikitako PEEHSKei atxikitako ontziak eta ontzi-hondakinak dira.

Dokumentuaren 6. klausulak honela arautzen du toki-erakundeen atxikipena:

6.1.- Hitzarmen honi beren borondatez atxiki nahi dioten toki-erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari jakinaraziko diote, eta akordio bat formalizatuko dute, XII. eranskin gisa agertzen den atxikipen-akordioaren ereduaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten diren atxikipenen berri emango die Ecoembes sozietateari eta atxikitako PEEHSKei, eta atxikipen-akordio bakoitzaren kopia bidaliko die, gehienez ere hogei egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak akordioa sinatzen (edo jasotzen) duenetik zenbatzen hasita. Esparru-hitzarmen honi hiru hilabeteko epean atxiki beharko zaio, sinatzen denetik zenbatzen hasita, eta aplikazio ekonomikoak atzeraeragina izango du 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

6.2.- Ezarritako epean atximendua formalizatu eta jakinarazi ez duten toki-erakundeek utzi egingo diote hitzarmen honetan ontzi-hondakinak kudeatzeko aurreikusitako mekanismoetan parte hartzeari, eta esparru-hitzarmen honen aplikaziotik kanpo geratuko dira atxikimendua formalizatu eta jakinarazi arte. Kasu horretan, atxikipen-akordioa sinatzen den hilaren 1etik aurrera aplikatuko dira ondorio ekonomikoak, atzeraeraginik gabe.

EAEko Administrazio Orokorraren eta Ecoembalajes España SA enpresaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenaren XII. Eranskineko atxikipen-akordioak honela dio hitzez hitz:

| | |
|---|---|
| **XII. eranskina. Toki-erakunde bat atxikitzeko akordioaren eredua.** | **Anexo XII. Modelo de Acuerdo de adhesión de una Entidad Local.** |
| **Akordioa, ..... Euskal** | **Acuerdo de adhesión de** |

**Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Ecoembalajes España SAk sinatutako esparru-hitzarmenari atxikitzeko dena.**

Akordio honen bidez,..... (e) ko Udalak, Mankomunitateak (aurrerantzean, Toki Erakundea) bat egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Ecoembalajes España, S.A.ren arteko Lankidetzarako Esparru Hitzarmenarekin, eta, horrela, APKZn parte hartzen du, abenduaren 27koa1055/2022 Errege Dekretuko 33.2.a) artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Zehazki,..... toki-erakundeak honako hauek hartzen ditu bere gain:

## KONPROMISOAK

### 1. Esparru-hitzarmenari atxikitzea

Toki-erakundeak esparru-hitzarmenaren edukia ezagutzen duela adierazten du, eranskin guztiak barne, eta, edukia dela-eta, aplikatzekoa den kudeaketa-eskumenen araubidearen arabera aplikatzekoa den guztian behartuta dagoela.

(Baldin eta:

Esparru-hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera,..... (Udalerriak edo partzuergoak) atxikitze-akordio hau sinatzen du, aipatutako Esparru-hitzarmenean ezarritako klausulen arabera eta honako

**…….. al Convenio Marco firmado entre La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y Ecoembalajes España, S.A.**

Por medio del presente Acuerdo, el Ayto., la Mancomunidad de ..... (en adelante Entidad Local) se adhiere al Convenio Marco de Colaboración entre La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y Ecoembalajes España, S.A., participando de esta forma en el SCRAPP, según lo dispuesto en el art. 33.2.a) del RD 1055/2022 de 27 de diciembre.

En concreto, la Entidad Local ..... asume los siguientes

## COMPROMISOS

### 1. Adhesión al Convenio Marco.

La Entidad local manifiesta conocer el contenido del Convenio Marco, incluidos todos sus Anexos, quedando obligada por su contenido en aquello que sea de aplicación en función del régimen competencial de gestión aplicable.

(Sólo si aplica:

De acuerdo a lo previsto en el Convenio Marco, ……(El Municipio o Consorcio) suscribe el presente Acuerdo de adhesión de acuerdo con las cláusulas establecidas en el mencionado Convenio Marco y con las siguientes condiciones particulares.

baldintza berezi hauekin:

BALDINTZA BEREZIAK)

**2. Erantzukizun adierazpena**

Toki-erakundeak Esparru-hitzarmen honetan ezarritako baldintzak formalki onartzeko konpromisoa hartzen du, bertan arautzen baitira bere partaidetzaren baldintzak.

Toki-erakundeak adierazten du Esparru-hitzarmena aplikatzean sortutako zenbatekoak bertan aurreikusitako jarduera guztiak finantzatzeko erabiliko direla, eta inola ere ez Esparru-hitzarmen honetan deskribatutakoez bestelako helburuetarako.

Gainera, Toki-erakundeak adierazi du sistemaren emaitzak eta eraginkortasuna etengabe hobetzeko beharrezkoak diren neurriak abian jarriko dituela, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Ecoembesen parte-hartzea eta lankidetza ahalbidetuko dituela.

Era berean, beharrezko neurriak hartuko ditu eragiketa horien eremuan desbideratzeak edo ez-betetzeak hautemanez gero.

**3. Atxikitzeko akordioaren indarraldia eta suntsiarazpena.**

Hitzarmen hau sinatzen denean jarriko da indarrean, eta atxiki zaion Esparru-hitzarmena amaitzen den egunera arte iraungo du.

Esparru-hitzarmena luzatzen bada, esparru-hitzarmen berriari atxikitzea luzatutzat joko da, salbu eta erakundeak Euskal Autonomia

CONDICIONES PARTICULARES)

**2. Declaración de responsabilidad.**

La Entidad Local se compromete en la aceptación formal de las condiciones establecidas en el presente Convenio Marco, en el que se regulan las condiciones de su participación.

La Entidad Local manifiesta que las cantidades devengadas en aplicación del Convenio Marco serán destinadas a la financiación de todas las actuaciones previstas en él y en ningún caso para fines distintos a los descritos en el presente Convenio Marco.

Además, la Entidad Local manifiesta que pondrá en marcha las medidas necesarias para lograr una mejora continua de los resultados y eficiencia del sistema, permitiendo para ello la participación y colaboración de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de Ecoembes.

Igualmente, tomará las medidas necesarias en caso de detectar desviaciones o incumplimientos en el ámbito de las citadas operaciones.

**3. Vigencia y Resolución del Acuerdo de adhesión.**

El presente Acuerdo entra en vigor a la firma del mismo, y tiene una duración hasta la fecha en la que expire el Convenio Marco al que se adhiere.

En el caso de prórroga del Convenio Marco, se entenderá prorrogada la adhesión al nuevo Convenio marco salvo que en el plazo de un mes desde la/s fecha/s en que éste deba entenderse prorrogado, la Entidad manifieste lo contrario por escrito a la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Erkidegoko Administrazio Orokorrari idatziz kontrakoa adierazten badio, luzatutzat jo behar den egunetik hilabeteko epean.

Atxikitzeko akordio hau honako arrazoi hauengatik ebatziko da:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Ecoembesen arteko esparru-hitzarmena suntsiaraziz.
- Esparru-hitzarmenari atxikitzeko akordioa sinatuta duen beste erakunde batean integratzeagatik.
- Alderdiek hala adostuta.
- Toki-erakundeak behin eta berriz ez betetzea erabaki honetan bere gain hartutako betebeharrak.
- Indarrean dagoen arau-esparruan aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko,..... jaunak/andreak, sinatzeko ahalmena duenak, erabaki honen hiru ale sinatu ditu.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ren _____ (e)(a)n.

Toki-erakundeak,

Oharra: Toki-erakundeak zuzenean harpidetzen ez badu (enpresa publikoak, partzuergoak, aldundiak,

El presente Acuerdo de adhesión será resuelto por las siguientes causas:

- Por resolución del Convenio Marco entre la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y Ecoembes.
- Por la integración en otra Entidad que tengan firmado Acuerdo de adhesión al Convenio Marco.
- Por mutuo acuerdo de las partes.
- Por incumplimiento reiterado por parte de la Entidad Local de las obligaciones asumidas en el presente Acuerdo.
- Por cualquier otra causa prevista en el marco normativo vigente.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, D./Dª……, facultado para su firma, suscribe el presente Acuerdo por triplicado.

En _____, el _____ de _____ de _____.

Por la Entidad Local,

Nota: En aquellos casos en los que no lo suscriba directamente la Entidad Local (empresas públicas, Consorcios,

| | |
|---|---|
| etab.), aldeek sinatzeko eskumena dutela egiaztatuko da. | Diputaciones, etc.), se verificará la competencia de las partes para su firma. |

TXOSTEN TEKNIKOA

Ingurumen eta nekazaritza teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2026ko irailaren 26an honako txostena eman du:

EAEko Administrazio orokorraren eta Ecoembalajes España S.A. ren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenaren atxikipena

GAIA: EAEko Administrazio orokorraren eta Ecoembalajes España S.A. ren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmenaren atxikipena.
UDAL TEKNIKARIA: IBON GOIKOETXEA RETEGI
ESPEDIENTE ZKIA.: 2026HITZ013

## XEDEA

Txosten tekniko honen xedea Usurbilgo Udala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Ecoembalajes España, S.A. (Ecoembes) erakundearen artean sinatutako Lankidetzarako Esparru-Hitzarmenera atxikitzearen egokitasun teknikoa aztertzea da.

## AURREKARIAK

- Atez Ateko bilketa eta 2010eko Plenoaren erabakia

  Usurbilgo Udal Osoko Bilkurak (Plenoak) 2010eko urriaren 26an hartutako erabakiaren bidez, EAEko Administrazio Orokorraren eta Ecoembes-en arteko orduko Esparru-Hitzarmenera atxikitzea onartu zuen, udalerrian Atez Ateko gaikako bilketa-sistema ezartzearekin eta abiaraztearekin batera. Harrezkero, Udalak eredu horren bidez bermatzen du ontzi-hondakinen gaikako bilketa eraginkorra eta PEEHSK/SCRAPP sistemarekiko lankidetza.

  Azken 5 urtetan aipatu hitzarmenaren ondorioz, Usurbilgo Udalaren diru sarrerak hurrengoak izan dira.

| Urtea | Ontzi Arinak | Paper eta kartoia | Diru Sarrera € (guztira) |
|---|---|---|---|
| **2021** | 147.550,07 € | 23.056,77 € | 170.606,84 € |
| **2022** | 152.564,33 € | 25.377,51 € | 177.941,84 € |
| **2023** | 176.037,57 € | 27.558,08 € | 203.595,65 € |
| **2024** | 174.003,18 € | 29.035,38 € | 203.038,56 € |
| **2025** | 177.833,71 € | 27.166,50 € | 205.000,21 € |

- Estatuko eta Euskadiko Araudi Berria

  Hondakinei eta lurzoruen kutsadurari buruzko 7/2022 Legeak eta Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko 1055/2022 Errege Dekretuak berretsi eta zorroztu egin dute Produktorearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboen (PEEHSK / SCRAPP) betebeharra, udalek bildutako ontzi-hondakinen kudeaketa-kostu osoa beren gain hartzeko.

- EAEko Esparru-Hitzarmena

  Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak eta Ecoembes-ek Lankidetzarako Esparru-Hitzarmena sinatu dute, EAEko lurralde-eremuan ontziak eta ontzi-hondakinak (papera/kartoia eta ontzi arinak) gaika biltzeko, hautatzeko eta birziklatzeko edo balorizatzeko konpromezuak eta finantzaketa-prozedurak arautzeko.

- Udal Eskumenak eta Kudeaketa Eredua

  Usurbilgo Udalak etxe, komertzio zein industriaguneetako hiri-hondakinen gaikako bilketa egiten du. Esparru-Hitzarmen honen 6. klausulak ezartzen du Toki Erakundeek borondatez atxikitzeko aukera dutela (XII. Eranskineko ereduaren bidez).

**AZTERKETA eta PROPOSAMENA**

- Finantzaketa kostuen estaldura

  Esparru-Hitzarmenera atxikitzeak bermatzen du Udalak papera/kartoia eta ontzi arinak biltzeagatik, garraiatzeagatik eta hautatzeagatik egindako gastu ekonomikoak Ecoembes-en bidez berreskuratzea, Hitzarmen berriaren II. eta III. eranskin erregulatzaileetan ezarritako formula eta modulu ekonomiko berrien arabera.

  Atzeraeraginkortasun ekonomikoa (6. klausula): Hitzarmen berri honetara epe barruan atxikitzeak ahalbidetzen du ondorio ekonomikoak 2024ko urtarrilaren 1etik atzeraeraginez aplikatzea, Udalak egindako kudeaketa-gastuak atzeratuta berreskuratu ahal izateko.

- Usurbilgo Atez Ateko bilketarekiko egokitasuna

  Hitzarmena Usurbilgo Atez Ateko bilketara egokitzen da gaikako bilketa monomaterialaren (papera/kartoia) eta multimaterialaren (ontzi arinak) trazabilitatea eta kalitate-kontrolak bermatuz gero.

  Kudeaketa ekonomikoa eta datu-transmisioa «Hondakinak kudeatzeko web-sistema» (8. eta 9. klausulak) plataformaren bidez bideratuko da.

- Ingurumen helburuak

  Atxikipen honek Usurbilgo Udaleko Atez Ateko hondakinen bilketa finantzatzen

laguntzen du.

**ONDORIOA eta PROPOSAMENA**

Aurreko guztia kontuan hartuta, hurrengoa proposatzen da:

LEHENENGOA. Usurbilgo Udala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Ecoembalajes España, S.A.ren (Ecoembes) arteko Lankidetzarako Esparru-Hitzarmen berrira atxikitzea onartzea.

BIGARRENA. Betearazitako Atxikipen-Akordioa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari helaraztea, Hitzarmenaren 6. klausulan xedatutako epe eta ondorio ekonomiko atzeraeragileak aplika daitezen.

**NEKAZAL ETA INGURUMEN TEKNIKARIA**
**Izta.: Ibon Goikoetxea Retegi**

LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak, Garazi Etxeberria San Miguel andereak, 2026ko urriaren 21an honako txostena eman du:

**Idazkariaren txostena**

Garazi Etxeberria San Miguelek, Usurbilgo Udaleko idazkari naizen aldetik, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 172. artikuluan eta Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honako txosten hau ematen dut:

**Aurrekariak**

2026ko uztailaren 23an, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA ECOEMBALAJES ESPAÑA SA ENPRESAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU HITZARMENA sinatu zen.

Hitzarmenaren aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako eta PEEHSKri (produktu ekoizlearen erantzukizun hedatuko sistema kolektiboa; gazteleraz, SCRAPP -*sistema colectivo de responsabilidad ampliada del productor*) edota atxikitako PEEHSKei atxikitako ontziak eta ontzi-hondakinak dira. Dokumentuaren 6. klausulak honela arautzen du toki-erakundeen atxikipena:

*6.1. − Hitzarmen honi beren borondatez atxiki nahi dioten toki-erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari jakinaraziko diote, eta akordio bat formalizatuko dute, XII. eranskin gisa agertzen den atxikipen-akordioaren ereduaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten diren atxikipenen berri emango die Ecoembes sozietateari eta atxikitako PEEHSKei, eta atxikipen-akordio bakoitzaren kopia bidaliko die, gehienez ere hogei egun*

*balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak akordioa sinatzen (edo jasotzen) duenetik zenbatzen hasita. Esparru-hitzarmen honi hiru hilabeteko epean atxiki beharko zaio, sinatzen denetik zenbatzen hasita, eta aplikazio ekonomikoak atzeraeragina izango du 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera*

*6.2. − Ezarritako epean atxikimendua formalizatu eta jakinarazi ez duten toki erakundeek utzi egingo diote hitzarmen honetan ontzi-hondakinak aurreikusitako hartzeari, eta kudeatzeko mekanismoetan parte esparru-hitzarmen honen aplikaziotik kanpo geratuko dira atxikimendua formalizatu eta jakinarazi arte. Kasu horretan, atxikipen-akordioa sinatzen den hilaren 1etik aurrera aplikatuko dira ondorio ekonomikoak, atzeraeraginik gabe*

Hitzarmenaren edukia eta aipatu erakundeen artean sinatutako lankidetzarako esparru hitzarmenera atxikitzearen egokitasuna Nekazal eta ingurumen teknikariak idatzi eta 2026ko irailaren 28an sinatutako txostenean dago jasota.

Idazkaritzari dagokion txosten honetan prozedurari dagozkion gogoetak eta jarraitu beharreko izapideen azterketa egiten dira.

## Oinarri juridikoak

### Lehena.- araudi aplikagarria

Aplikatu beharreko oinarrizko legeria honako hau da:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruz
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideari buruz indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bategina onetsi duena.

### Bigarrena.- Gogoeta juridikoak

Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginak, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, 111. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, toki-erakundeek komenigarritzat jotzen dituzten kontratuak, itunak edo baldintzak itundu ditzakete, baldin eta interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren edo administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez badira.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak emandako idazketaren arabera, Toki-administrazioaren eta autonomia-erkidegoetako administrazioen arteko lankidetza ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa, toki-zerbitzuetan zein guztien intereseko gaietan, borondatez garatuko da, legeetan aurreikusitako moduan eta baldintzetan,

eta, nolanahi ere, sinatzen dituzten administrazio-hitzarmenen bidez ere gauzatu ahal izango da.

Hitzarmenak sinatzeak kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu beharko du, administrazio bikoiztasunak ezabatu eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86.1 artikuluak ere antzera jasotzen duenez, administrazio publikoek akordioak, itunak, hitzarmenak edo kontratuak egin ahal izango dituzte zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin, baldin eta ez badira ordenamendu juridikoaren aurkakoak, ez badira transakziorik egin ezin den gaiei buruzkoak, eta esleituta duten interes publikoa betetzea badute xede, xedapen juridiko bakoitzak aurreikusten duen irismenarekin, ondorioekin eta araubide espezifikoarekin.

Honela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 artikuluak dio: *administrazioen arteko lankidetza-hitzarmenak negoziazio-figura bat dira, eta horren inguruan alde biko lankidetza garatzen da. Lankidetza horren barruan, beste administrazio publiko baten bitartekoak, zerbitzuak eta baliabideak erabil daitezke, eskumen propioak edo eskuordetuak baliatzeko.*

Toki entitateek egiten dituzten lankidetza-hitzarmenak ez dira administrazio-kontratutzat hartuko, eta, beraz, ez zaizkie aplikatuko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasotako aurreikuspenak. Lege horren 6.1 artikuluak ezartzen du lege honen eremutik kanpo egoteko betebeharreko baldintzak.

Zentzu horretan, hitzarmenek ezin dituzte xedetzat izan kontratuen berezko prestazioak; bestela, guztiz aplikagarriak izango dira sektore publikoko kontratazioaren arloko xedapenak.

Lankidetza-hitzarmenen mugei dagokienez, lehiaren izaera xedaezinetik eratorritakoei ere erreparatu behar zaie; beraz, hitzarmenak ezin du balio Konstituzioaren, estatutuen eta lehiaren oinarrizko legeriaren banaketa aldatzeko.

Hitzarmena sinatzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko du, administrazio bikoiztasunak ezabatu, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako jarduna erraztu, onura publikoko jarduerak egiten lagundu, eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete. Hori guztia espedientean egiaztatu behar da.

Aztergai dugun hitzarmen honek Hondakinei eta lurzoruen kutsadurari buruzko 7/2022 Legeak eta Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko 1055/2022 Errege Dekretuak jasotzen dituzten Produktorearen Erantzukizun Hedatuko Sistema Kolektiboen (PEEHSK / SCRAPP) betebeharrak arautzea du helburu, eta era horretan udalek bildutako ontzi-hondakinen kudeaketa-kostua beren gain hartzen dute. Hala, EAEko lurralde-eremuan ontziak eta ontzi-hondakinak (papera/kartoia eta ontzi arinak) gaika biltzeko, hautatzeko eta birziklatzeko edo balorizatzeko konpromezuak eta finantzaketa-prozedurak arautzen ditu aipatu hitzarmenak.

**Hirugarrena.- Jarraitu beharreko prozedura**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, administrazio bakoitzari aplikatu beharreko arauek zehazten dute lankidetza-hitzarmenak egiteko eskumena, eta, toki-administrazioaren esparruan, alkateari edo osoko bilkurari dagokio, kasuan kasuko eskumeneko gaiei dagokienez.

Hitzarmen-proposamenak udal-kontu-hartzailetzaren txostena (edo kontabilitate agiria) beharko du, udal honi betebehar ekonomikoak badakarzkio. Horretarako, udal-aurrekontuan jaso beharko dira dagokion gastuari aurre egiteko behar diren aurrekontu-zuzkidurak.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50.1 artikuluak eskatzen du hitzarmenari nahitaez justifikazio-memoria bat erantsi behar zaiola, haren premia eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardueraren kontratuz kanpoko izaera eta lege horretan aurreikusitakoa betetzen dela aztertzeko.

Alderdiek adostasuna emanez burutzen dira hitzarmenak. dagokion lankidetza-organoen eta hitzarmenen erregistro elektronikoan inskribatu behar dira (40/2015 Legeko 144.3 art.). Aldez aurretik, eta aukeran, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ahal izango dira.

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 53.1 artikuluarekin bat etorriz, 600.000 eurotik gorako konpromiso ekonomikoak dituen edozein hitzarmen sinatu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, elektronikoki bidali beharko zaio Kontuen Auzitegiari.

Dagokigun kasu honetan, dagokion udal-organoa udalbatza osoa dela irizten da, zerbitzuen kudeaketari lotuta kudeaketa era zehazten duen hitzarmena izaki (7/1985 legeko 22.2.f) artikulua). Halabaina, ikusirik dagokion atxikipena 2026ko urriaren 23a baino lehen egin beharko lukeela Udalak, hitzarmenak jasotzen duen atzera-eraginkortasun aukera baliatzeko; hurrengo ohiko udalbatza osoaren bilkura urriaren 29an dela ikusita, eta kontuan izanda horrek Usurbilgo Udalari ekarriko lizkiokeen onura ekonomikoak, Alkate-dekretu bidez onartuko da proposamena, aipatu 7/1985 legeko 21.1.k artikuluak jasotzen duen eskumen esleipenari jarraiki (alkateari esleitzen zaio honakoa: *“Ekintza judizial eta administratiboak gauzatzea eta udal-gobernua defendatzea haren eskumeneko gaietan —nahiz eta gai horiek beste organo baten esku utzi diren—; bai eta, premiazko kasuetan, Osoko Bilkuraren eskumenekoak diren gaietan ere. Azken kasu horretan, Osoko Bilkurari jakinarazi beharko zaio hurrengo bilkuran, egindako jarduna berrets dezan.”)*

**Ondorioak**

Aurreko guztia ikusita, txosten hau sinatzen duenak jakinarazten du egokia dela hitzarmena bideratzea, eta EAEko Administrazio Orokorrak eta Ecoembalajes España SAk sinatu duten hitzarmenera atxikitzea , Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak 47.artikulutik 53.artikulura ezarritakoari jarraiki

Usurbilgo Udala

2026/10/29

## DEKRETU PROPOSAMENA

**Lehenengoa**.- Usurbilgo Udala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Ecoembalajes España, S.A.ren (Ecoembes) arteko Lankidetzarako Esparru-Hitzarmen berrira atxikitzea onartzea.

**Bigarrena.-** Betearazitako Atxikipen-Akordioa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari helaraztea, Hitzarmenaren 6. klausulan xedatutako epe eta ondorio ekonomiko atzeraeragileak aplika daitezen

**Hirugarrena**.- Alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren izenean aipatuta Hitzarmenera atxikitzeko eranskina izenpetzeko.

**Laugarrena**.- Hurrengo bilkuran Udalbatza osoari jakinaraztea, erabaki hau berrets dezan.

**Bosgarrena**.- Erabaki honen berri EAEko administrazio orokorrari ematea, eta dagokion espedientearen bitartez bidaltzea.

Hau da sinatzen duen honen iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Hala eta guztiz ere, Alkateak egokitzat jotzen duena erabakiko du.

Usurbilen, sinadura datan.

Garazi Etxeberria San Miguel
Udal Idazkaria

Guzti hau ikusirik,

**ERABAKI DUT**

**LEHENDABIZI:** Usurbilgo Udala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Ecoembalajes España, S.A.ren (Ecoembes) arteko Lankidetzarako Esparru-Hitzarmen berrira atxikitzea onartzea.

**BIGARRENA:** Betearazitako Atxikipen-Akordioa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzari helaraztea, Hitzarmenaren 6. klausulan xedatutako epe eta ondorio ekonomiko atzeraeragileak aplika daitezen.

**HIRUGARRENA:** Alkateari ahalmena ematea Usurbilgo Udalaren izenean aipatuta Hitzarmenera atxikitzeko eranskina izenpetzeko.

**LAUGARRENA:** Hurrengo bilkuran Udalbatza osoari jakinaraztea, erabaki hau berrets dezan.

**BOSGARRENA** Erabaki honen berri EAEko administrazio orokorrari ematea, eta dagokion espedientearen bitartez bidaltzea.

Beraz, Alkate-Lehendakariak erabakitakoa berrestea dagokio Udalbatza Plenoari.

Gauzak horrela, alkatearen proposamena aztertuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**LEHENDABIZI**: Alkate-Lehendakariak 2026ko urriaren 21ean 2026/1500 dekretuaren bidez hartutako erabakiak berrestea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

**9.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO FORMALIZATUTAKO HITZAMENA URTEBETEZ LUZATZEA (2023HITZ0009).**

Batzarkideek Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

**“1.- AURREKARIAK**

Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELD) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikuluak ezarritakoaren arabera.

Legearen eskumen-banaketaren arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea gauzatzen ez den bitartean, udalak ezin du bere gain hartu etxez etxeko zerbitzuaren finantzaketa bakarrik. Ez, behintzat, horrek intentsitate- eta estaldura-mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

Aurrekoa ikusita, Diputatuen Kontseiluak 2021eko azaroaren 30eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmen eredua onetsi zen.

Erabaki horren hirugarren puntuan xedatutakoaren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuari (gaur egun, Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentua) ahalmena eman zitzaion dagozkion hitzarmenak sinatzeko, bai eta beharrezkoak ziren gainerako kredituak baimentzeko ere, dagozkien urterokoei zegozkien ekitaldiko aurrekontu orokorrak indarrean zeudenean.

Horren arabera, Gizarte Politiketako Departamentuak zegozkion hitzarmenak sinatu zituen Gipuzkoako Lurralde Historikoko 78 udalekin eta mankomunitateekin. Hitzarmenetan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako udalerrietan etxeko laguntza zerbitzua emateagatik foru finantzaketaren urteko kostua 8.192.461,00 eurotan finkatu zen.

Hitzarmen horiek, hamalaugarren klausulan ezarritakoaren arabera, 2021eko urriaren 1etik aurrera izan zituzten ondorio ekonomikoak, eta aurreikusi zen 2023ko abenduaren 31ra arte egotea indarrean.

Kontuan izanda etxeko laguntza zerbitzua segidazko traktuko zerbitzua dela, hitzarmenaren ondorio ekonomikoak zabaltzeko aukera ezarri zen, lau urteko hasierako iraupena agortu arte. Ahalmen hori baliatuz, Diputatuen Kontseiluak 2023ko abenduaren 12ko bilkuran hartutako erabakiak jada aurreikusi zuen urte natural batez ondorio ekonomiko horiek zabaltzea, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluak, 2024ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, bederatzi hilabeteko beste behin ondorio ekonomikoak zabaltzea onetsi zuen, hasierako gehieneko indarraldia (lau urtekoa) agortu arte. Ondorio ekonomikoen zabalpen horrek 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitarteko aldia hartzen zuen, eta aplikatu zen alde sinatzaileek indarraldia amaitu aurretik adostu zitzaketen luzapenei kalterik egin gabe, hitzarmenaren 14. klausulak xedatutakoaren arabera:

“Hala ere, hitzarmena sinatzen duten alderdiek aho batez eta hasierako lau urteko epea amaitu baino lehen adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea.”

Klausula horrekin bat etorriz, Diputatuen Kontseiluak, 2025eko irailaren 10ean egindako bilkuran, lehenengo luzapena onartu zuen, lau urte gehigarrietako baterako, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era bitarteko aldirako.

Luzapen hori amaiturik, egokitzat jotzen da hitzarmena beste urtebetez luzatzea, 2026ko urriaren 1etik 2027ko irailaren 30era arte, zerbitzua ematen jarraitzeko. Behin luzapen hori amaituta, alderdiek urteko beste luzapen batzuk adostu ahal izango dituzte, betiere gehienez lau luzapen errespetatzen badituzte, hitzarmenaren 14. klausulan aurreikusitakoaren arabera.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan laguntza zerbitzua emateagatiko foru finantzaketaren urteko kostua 8.192.463,00 eurokoa izango da. Hamabi hilabeteko zabalpen berriari dagozkien ordainketak hiruhileko lau likidaziotan ordainduko dira.

Guzti hau ikusirik, Herritarrak Batzordeak, 2026ko urriaren 21ean egindako bilkuran, lau aldeko botoekin (Agurtzane Solaberrieta, Jon Mikel Azpiazu, Ivan Iriondo eta Petra Romero) proposatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**Lehenengoa**: Urtebetez luzatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko formalizatutako hitzamena, 2026ko urriaren 1etik 2027ko irailaren 30era.

**Bigarrena:** Alkatea ahalmentzea Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetza hitzarmen hau sinatzeko.

**Hirugarrena**: Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki hauen berri ematea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

## 10.- MOZIOA: UEMAREN ESNATU DINAMIKAREN BARRUAN, USURBILEN EUSKARAREN BIZIBERRITZEA SUSTATZEKO USURBILGO UDALAK HARTU BEHARREKO KONPROMISOAK (2026IMOZ0006).

Batzarkideek Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2026ko urriaren 21eko Herritarrak Batzorde Informatzailean, UEMAren Esnatu dinamikaren barruan Usurbilgo Udalak euskararen biziberritzea dela-eta hartu beharreko konpromisoen mozioa aztertu dute batzarkideek.

Batzarkideen gehiengoaren aldeko bozkarekin onartu dute, honela izan da bozketa:

- Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta, Jon Mikel Azpiazu eta Ivan Iriondo.
- Abstentzioa: Petra Romero.

2026ko urriaren 21eko Herritarrak batzorde informatzailearen irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

**E R A B A K I A**

**Lehena:** UEMAren Esnatu dinamikaren barruan, Usurbilen euskararen biziberritzea sustatzeko Usurbilgo Udalak hartu beharreko konpromisoen mozioa onartzea."

Honela dio Udalbatzarrak onartutako mozioak:

**"ESNATU MOZIOA**

Arnasguneek hizkuntza gutxituen biziberritzean duten garrantziaz sarri hitz egin da Mikel Zalbide soziolinguistak kontzeptua bera euskarara ekarri zuenetik. Lehenago, UEMA sortu zutenek ere, lurgune euskaldunak euskarak bizirik irauteko duen garrantziaz ohartuta ekin zioten mankomunitatearen ibilbideari. Harrezkero, urte askoan egindako lanaren ondotik, gaur egun adostasun handia dago arnasguneek indarberritze-prozesuan duten garrantziaren inguruan, bai euskalgintza sozialean, bai akademian, bai euskararen alde ari diren erakunde publikoetan.

Kezkatzekoak dira, ordea, euskara indartsuen dagoen lurgunean antzematen diren joerak. Ez da oraingo kontua udalerririk euskaldunenetan adierazle soziolinguistiko nagusiak atzeraka hasi izana, baina urteek aurrera egin ahala, egoera kezkagarri batera iritsi gara, zinez. Adierazle nagusietan atzera egiteaz gain, gune horietako hiztunen tipologia ere asko aldatu da. Azken batean, nazioarteko joera orokorrekin bat, bizi-ereduaren bilakaerak, bilakaera demografikoak eta globalizazioaren ondorio zuzenek arnasguneak desagertzeko bidean jarri dituzte. Argi erakutsi du Siadecok 2025ean egindako proiekzio demolinguistikoak: euskararen alde orain arte egiten ari garena egiten jarraitzen badugu, euskarak bizi duen geldialdia galera-fasean sartuko litzateke. Horri aurre egingo dion erantzun sendo bat mamitu nahiak bultzatu zuen UEMA otsailean Lurralde Estrategia Euskararentzat proposamena aurkeztera.

UEMAk, 121 udalerri euskaldun biltzen dituen erakunde publikoa den heinean, dagokion arduratik eta eremu euskaldunena gure hizkuntzarentzat giltzarria dela jakinda egin zuen proposamena. Ekarpen hori bere bidea egiten ari da. Proposamen horrek hizkuntza-politikaren norabidea aldatzea eskatzen du, eta, bide horretan, adostasunak bilatzeko lanean ari da UEMA orain.

Horrekin batera, *Esnatu* dinamika abiatu zuen UEMAk apirilean, politikatik egin beharrekoaz gain, gizartea bera ere badelako nor geldialdi horri aurre egin eta euskararen biziberritzea indarraldian jartzeko. Dinamika horren abiapuntu gisa, Euskal Herriko nazio mailako 18 eragilek atzerakada hori gelditzeko konpromisoak hartu zituzten. Ordutik, udalerriz udalerri herrietako eragileak ere dinamika horretara gehitzeko lanean dihardu UEMAk. Ildo horretan, guri, udal gisa ere, badagokigu gure eredugarritasuna ikusaraztea, eta bide honetan gure alea jartzea.

Usurbil udalerri euskalduna da, eta biziberritze-prozesuan euskara sustatzeko urrats sendoak ematea da gure helburua. Horretarako, Udalak duen arduratik eta dituen eskumenetatik konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Erabilera-planean onartutako hizkuntza-irizpideak betetzea.
- Kontratazio publiko guztietan hizkuntza-baldintzak txertatu eta horien jarraipena egitea.
- Doako euskalduntzea bermatzea.
- Haur eta gaztetxoen aisialdia euskara hutsean programatzea.
- Udalen eskumenekoak diren esparruetan euskararen normalizazioan urrats sendoak ematea (ELE Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko ordenantza, terrazetako ordenantza, azoka eta ferietako ordenantza…).
- Etorri berriak euskarara gerturatzeko egitasmoetarako bitartekoak areagotzea.
- Zenbait arlotako (ostalaritza, zaintza eta abar) langileak euskalduntzeko bitartekoak areagotzea.
- *Esnatu* dinamikari lotuta, euskararen etorkizunari buruzko gogoetaprozesua egitea herrian, askotariko herritar eta eragileekin batera.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, mozioa aho batez onartu da.

**11.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:36an. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**